

Familia agurgarria

Zuen semea/alaba gure ikastetxearen parte izango da datorren irailetik aurrera, eta berarekin batera, zuek ere gure ikas-komunitatearen parte bihurtuko zarete. Zaraobeko Zuzendaritzatik ongi etorria eman nahi dizuegu. Zaraobeko Institutua erreferentziako instituzioa da Amurrio eta Aiaralde osoko heziketan; DBH, Batxiller eta Heziketa Zikloak eskaintzen dituelarik. Gure xedea kalitatezko irakaskuntza eskaintzea da, ikasleen eguneroko ongizatea aldi berean bermatuz.

Guretzat oso aberasgarria da **zuen parte hartze aktiboa eta inplikazioa**, bai zuen seme/alabaren **irakaskuntza prozesuan**, bai eta institutuaren bizitzan ere, **EIGeren bitartez** edo **Eskola Kontseiluan (OOG) parte hartuz**, adibidez.

Irailean 2023-2024 ikasturteari ekingo diogu. Zaraoben, gure eskuetan dagoen guztia egiteko konpromisoa hartzen dugu, ikasleen hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, bai eta euren eta guztion ongizatea bermatzeko ere.

Dokumentu honek, zuek agurtzeaz gain, kurtso hasierako oinarrizko informazioa emateko helburua du.

Jarraian 2023-24 kurtsoari begirako informazio esanguratsuena jakinarazten dizuegu. Informazio hau osatzeko, mesedez web orrialdea kontsultatu [web-orria](#).

1. Kurtso hasiera: Aurkezpena **irailaren 8an**, ostirala. Kurtsoaren egutegi osoa web orrialdean ikus daiteke.
2. Aurkezpen ordutegia institutuan **10:00etan** izango da. Garraio erabiltzaileak autobusak normalean hartuko duen baino **ordu t´erdi beranduago** hartuko du, web orrialdean [zerbitzu atalean](#) kontsultatu ordutegia.
3. **URTEROKO ORDAINKETAK:** (kurtso hasieran ordinagiriak jasoko dira).
 - **Liburu solidarioa. 1.DBH ikasleak liburu solidarioaren programari** atxikitzen zaizkio espreski uko egin ezean. Informazio gehiago web orrialdean. Gainera,
 - **Eskola materiala**
 - Ordainketa bakarra, takila hezkuntza-etapa osoan (DBH + BATXILERGOA) erabiltzeagatik, baldin eta erabilera zuzena bada.
**Takilak erabiltzeko araudia web orrialdean ikus daiteke.*
 - **AMPA** (eskolaz kanpokoak, Hedatze-Ahozko komunikazio-saioak ingelesez- literatur lehiaketa...) **20€ familiako.**
4. **DBHko 1. mailako ikasleek 2 karnet-argazki** (argazki bakoitzaren atzeko aldean izena eta 2 abizen idatzita) ekarri behar dituzte.
5. Eskola ordutegia: 2023-24 ikasturteko ordutegia **trinkoa** izango da (**DBHn 08:30-14:30 eta Batxilergoan 08:30-14:30/15:25**). Ordutegiaren zehaztasunak, web orrialdean. Sarreran metaketak saihesteko 08:20tik aurrera iristea gomendatzen da DBHn eta 08:15, batxilerrekoen kasuan.
6. **HEDATZE** programa: ZARAUBE BHik Hedatze programa du. Errefortzu eta tailerretako programa, arratsalde, urritik aurrera. Irailean emango dizuegu horri buruzko informazio gehiago.

7. Garraioa **DBHko ikasleentzat: Behin-behineko ibilbideak**. Ibilbide batzuk berrikusteko moduan daude, Ordezkaritzaren aplikatiboan. Ibilbideei eta geralekuei buruzko *informazio gehiago Zaraobe BHren webgunean, ZERBITZUAK - ESKOLA-GARRAIOA atalean*.

A-0119: Campijo, Soxo, Arespalditza.

A-0216: Añes, Menagaraiko ikastetxea, Beotegi, Agiñiga, Izoria.

A-0121: Gordeliz, Artziniega, Menagarai.

A-0122: Okondo, Zuhatza, Murga, Olabezahar, Larrabe.

A-0123: Luiaondo I - Malato, Oleta.

A-0120: Luiaondo II-Estanko, Las Vegas, Done Erroke, Kider.

A-0124: Tertanga, Urduña.

A-0125: Lezama, Baranbio, Lezama, Larrinbe.

A-0177: Lendoñobeiti, Urduña Antigua, Delika, Urduñako sarrera, Lekamaña.

Babesgabetasun-zantzuak jakinarazteko betebeharra.

«Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005 Legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun-egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela; hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek beren funtzioak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinaraziko die gizarte-zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari».

ZARAOBE INSTITUTUKO WEB ORRIA

Gure web helbidea hau da: <https://zaraobe.net>

Bertan oso erabilgarria den informazioa eskura dezakezue.

Zalantzarik izanez gero, deitu mesedez ikastetxeko telefonora **945 393 000**, goizeko ordutegian irailaren 1etik aurrera.

Uda ona igaro duzuelakoan

Agur bero bat

Adeitasunez, Iñigo Lòpez de Santiago
Zaraobe Institutuko Zuzendaria.

Amurrion, 2023ko uztailean



DBH 1

Testu liburuei dagokienean, zuen seme-alabak programa solidarioaren barruan daude, zuek kontrakoa adierazi ezean. Horrela izanik, hurrengo liburu hauek **zeuek erosi behar dituzue, alegia** (programa SOLIDARIOAn sartzen ez direlako):

<u>INGELESA</u>	<u>HAUTAZKO : FRANTSESA I</u>
NEW ENGLISH IN USE 1 Workbook BASQUE Argitaletxe: Burlington ISBN: 978-9963-51-658-2	TRANSIT 1 Cahier d'exercices 1. Argitaletxe: Santillana ISBN: 978-8490-49-449-3

URTEKO ORDAINKETAK:

Kurtso hasieran 2 ordainagiriak eta 2 argazkiak jasoko dira

A- Kontzeptuan ikastetxean matrikulatutako ikaslearen izen-abizenak jarriko dira.

KUOTA: 71 €: (liburu solidarioa 41 €+ materiala 25 €+*takilla 5 €) * (aukerakoa)

KUTXABANK
ES95 2095 0611 0110 9095 2895

B- IGEko bazkide gisa izena emateko, familia bakoitzak kuota bat ordainduko du jarduera osagarriengatik eta eskolaz kanpoko jarduerengatik, beherago agertzen den kontu-zenbakian. (AMPA-BABIOren kontua):

- *Gurasoen Elkartearen kuota familia-unitate bakoitzeko 20 €-ko ordainketa bakarrekoa da, Institutuan zenbat seme-alaba dauden kontuan hartu gabe.*
- *2023-2024 ikasturterako IGEaren kuotaren ordainketa dagoeneko egin daiteke, eta ordainagiria gorde, ikasturtea hastean entregatzeko.*

En el concepto se pondrá el nombre y apellidos de **uno/a** de los hijos/as de la familia matriculados en el centro. **KUOTA: 20€**

CAJA RURAL NAVARRA
ES70 3008 0214 18 3245703826